

BASAGAINGO HERRIXKAKO (ANOETA, GIPUZKOA)

INDUSKETA ARKEOLOGIKOAREN TXOSTENA

XXVII. EKINALDIA

2021EKO IRAILA



Historiaurreko Arkeologia Saila

Aranzadi Zientzia Elkarte (Donostia)

Zuzendaritza: Xabier Peñalver Iribarren eta Eloisa Uribarri Agirrebengoa

SARRERA

2021. urteari dagokion ekinaldia, Covid 19ak eragindako ezohikotasunaren barruan egonik ere, modu normalizatuagoan egiten saiatu gara, pandemiaren aurreko ekinaldietako induskatzaile (arkeologo nahiz ikasle) kopuru bertsuarekin lan eginez berriz ere, baina egun horietan ezarrita zeuden neurriak mantenduta.

Horri esker eremu gehiagotan esku hartu ahal izan dugu, horietako batzuk indusi gabe geratu baitziren 2020ko ekinaldian. Hori guztia iraileko hiru astetan zehar gauzatu dugu.

Balantze orokorra ona da, izan ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailari aurkeztutako proiektuan azaldutako hainbat jarduera-esparrutako helburuak bete baititugu, eta gainera, ez da inolako egoera negatiborik izan pandemiari dagokionez.





2021eko indusketa-ekinaldiko partaideen bi argazki.

HERRIXKAREN DESKRIBAPENA

Basagaingo herrixka harresitua izen bereko mendian dago, itsas mailatik 295 m-ko altuerara, eta Oria ibaitik 227 m-ko altuerara eta 650 m-ko distantziara, Iruraren parean, Anoeta (Gipuzkoa) udalerrian.

Muino luzexka batean kokatua, lurrez estalitako harresi batek oso-osorik inguratzen du, nahiz eta horren ibilbidearen gehiengoan ezponda baino ez den ikusten; inguruaren ikuspegi zabala dauka, eta horrek Oria ibaiaren ibilguaren zati handi batekiko kontrol handia ematen dio. Esparruko zenbait aldetatik ibai beraren gainean kokatuta dagoen Buruntzako herrixka (Andoain) ikusten da.

Guztira 2,81 hektareako azalera dauka, eta gailurrean ipar-hego norabidean 100 m luze eta ekialde-mendebalde norabidean 25 m zabal den (2500 m², beraz) eremu bat dauka. Dena den, herrixkaren terrazadun eremuak garrantzi handia du, arkeologia-lanek erakusten duten moduan.

Eremu hori esparruaren ekialdeko aldetik doa eta hegoaldean mendebaldera biratzen da; ibilbide osoa harresiaren ondoan egiten du eta

kota oso uniforme mantentzen du. Terraza horrek 30/35 m-ko zabalera hartzen du toki batzuetan, esku hartu dugun eta egituren aztarnak eta material ugari aurkitu diren eremuan, hain zuzen ere. Esparru honetako eremu lauek 11250 m²-ko azalera hartzen dutela kalkulatu da, hau da, harresitutako azalera osoaren % 40. Herrixkaren gehieneko aldapa % 32,42koa da, eta gutxienekoa berriz % 22koa.

Esparruaren goiko aldean, uneraren batean harria erauzi zela diruditen bi leku daude; lehenak 40 m² inguruko azalera dauka, eta bigarrenak, berriz 80 m² ingurukoa, haitzaren ebaketa bertikalaren alderdian 2,20 m-ko gehieneko sakonera duelarik.

Material arkeologikoei eta ¹⁴C bidezko datazioei esker dakigu, herrixkaren induskatutako eremua gurearen aurreko aroaren azken mendeen eta gurearen lehenengoaren artean kokatzen zela. Horrela, eskuz eta tornuz egindako zeramika-tipologia ugariak eta jarduera metalurgiko garrantzitsuen aztarnez gain (aleak eta ekoizpen-jardueraren aztarnak), beste ale esanguratsu batzuk nabarmentzen dira; besteak beste, beira-orezko besoko zati bat (K.a.-ko 220 eta 80. urteen artean datatua, eta ziurrenik zehazkiago K.a.-ko 175 eta 125 urteen artean), Bascunes txanpon-etxeko zilarrezko denarioa eta oin alderantzikatuko eta Iturissa motako fibulak.

Herrixka honetan orain arte lortutako ¹⁴C bidezko datazioak hauek dira:

2360 ± 120 BP, 2320 ± 90 BP, 2310 ± 55 BP, 2170 ± 80 BP eta 1600 ± 80 BP.

Landa-lanak irailaren 1a eta 17a bitartean egin genituen. Esku hartu beharreko eremuko estalkia kendu eta garbitu ondoren, honoko guneeetan jardun genuen: ekialde-mendebalde erorketa-eremuan, ipar-mendebaldeko muturrean, harresiaren barrualdetik gertuen dagoen bizileku-esparruan, harresiaren barrualdean (oinarriko ilarak) eta behearanzko adarrean, eta herrixkara sartzeko mendi-bidearen ondoko harresiaren inguruko eremuan. Era berean, herrixkaren gaur egungo sarreraren inguruko babesaren ibilbidea aztertzen jarraitu genuen.



Landa-lanak 2021eko ekinaldian.

1. EKIALDE-MENDEBALDE NORABIDEN ERORKETA-EREMUA

16T eta 16U koadroetan lan egin genuen, baina baita 17T eta 17U koadroen hegoaldeko zatian ere. Koadroak 5 x 5 metrokoak dira, hau da, 25 m²-ko azalera dauka bakoitzak.

Erorketa-eremu horrek hasieran neurri askotako harri ugari zituen, haietako batzuk hareharri gorriakako lauzak, batzuetan ebaki linealen arrastoekin. Eremu horretan, lerro ebaki finekin apaindutako estelen aurkikuntza nabarmendu behar da; horrez gain, beste mota batzuetako material arkeologiko asko aurkitu genuen (zeramikoa, metalikoa, litikoa eta beirazkoa).

Geruzaz geruza, eremu horretako harriak kenduz joan ginen, aurrez geruza bakoitzaren marrazkiak eta argazkiak egin ondoren.

Ekinaldia amaitu ostean, U bandan (16 eta 17) ia ez da geratu harririk eta lur gorriakako maila trinkoa dago azalean; aldiz, T bandan, 17 koadroan, neurri ertaineko harriak ikusten dira hegoaldeko zatian, ondoko koadroetan (16T eta 17S) gertatzen den moduan. Inguru horretan, bertako maila naturala pixka bat beherago dago, harkoskorren maila horren azpian. (2022an lan egingo dugu hor).

16 T eta 16U koadroen hegoaldeko alderdiaren zati handi batek kolore ilun gorriak dauka, oinarriko geruzari dagokiona.



Harresiaren erorketa-eremua ekialde-mendebalde norabidean.

2. ZABALDUTAKO EREMUAREN IPAR MENDEBALDEKO MUTURRA

Eremuak S banda hartzen du, 16 eta 17 koadroetan. 16S koadroan, ondoko T eta U bandetan gertatzen den moduan, bertako oinarriko geruzari dagokion beheranzko malda handia dago hegoaldeko iparrera. 17S koadroaren iparraldeko zatia kota askoz altuagoan dago eta oraino ez dugu induskatu.

Inguru hori indusketa-fase atzeratuagoan zegoen eta eremu osoan oinarriko maila antzemateko esku hartu genuen.

Ekinaldiaren hasieran gainazalaren zati handi bat harri askoz hartua zegoen, neurri ertainekoak gehienak, herrixkaren terraza honetan ohikoa den kolore marroi argiko lur buztintsuarekin nahasita.

2021eko lehenengo geruza erauzi ostean harrien kopurua gutxitu egin zen eta kolore gorrixkako oinarriko substratu-guneak agertu ziren. Bigarren geruza jaistean harriak are gehiago gutxitu ziren, eta soilik ekialdeko zati batzuetan agertzen ziren, ondoko T bandako koadroetakoekin erlazionatuta.

16S eta 17S koadroen arteko mugan tamaina handiko harlauza batzuk (horietako bat estela bat izan daiteke) eta lur erreko bloke trinko bat daude; bloke hori oraindik aztertu gabe dago, baina suaren eraginez gogortutako bizileku-egitura baten zatia izan daiteke.



S eta T bandak 2021eko esku-hartzearen ostean.



16S eta 17S koadroetan aurkitutako aztarnak, testuan aipatuak.

3. HARRESIAREN BARRUALDETIK HURBIL DAGOEN BIZILEKU ESPARRUA

Aurreko ekinaldietan zutoin-ziriak eta material arkeologikoen maila oso aberatsak aurkitutako eremu horizontal horretan, urtez urte sakonduz joan gara, oinarriko mailara iristeko helburuarekin. Modu berean, apur bat gehiago sakondu genuen harresiaren barrualdetik hurbilena zegoen bandan, batez ere W bandan.

Aurtengo ekinaldian V banda induskatu dugu, hain zuzen ere 13, 14 eta 15 koadroetan. Estratuan ia ez zegoen harririk, zintzilik zeuden batzuk baino ez genituen kendu, batez ere 15V koadroan.

13V eta 14V koadroetan jadanik agertzen zen oinarriko estratu gorrixka, baina baita azaleratze harkaiztsu txiki bat ere; hain zuzen ere, azaleratze horri zegokion neurri txikiko harrien pilaketa txiki bat kendu genuen.

15V koadroan, ia-ia harresiaren barrualdeari itsatsita, zutoin-ziri bat agertu zen, harrietako batzuk bertikalki mantendu zituen.



Esku hartutako bizileku-eremua (V eta W bandak).



15V koadroan harresiari itsatsitako zutoin-ziria.

4. HARRESIA

Egitura honi dagokionez, haren barrualdean esku hartu dugu, eta harri horiko ilera berria utzi dugu agerian hegoaldeko zatian.

Bestalde, harresiaren oinarriaren zati handi batean, barrualdetik, harri txiki nahiko lauez osatutako metaketa bat dago, babes-egituraren beheko zatia sendotzeko balio zezakeena.

Ibilbide nagusitik abiatu eta ipar mendebalderantz desbideratzen den harresiaren ibilbideari dagokionez, haren ibilbidea zabaltzeko eta argitzeko lan egin genuen, eta punturen batean azpiko ilara berri bat aurkitu genuen.



Harresiaren barrualdearen zati bat azpiko ilara berri aurkitu ostean.



Oinarriko ilararen xehetasuna.



Harri txiki trinkoak harresiaren oinarrian, barrualdetik.

5. HERRIXKARA SARTZEKO MENDI-BIDEAREN ONDOKO HARRESIAREN EREMUA

Herrixkara sartzeko bidearen ondoko eremuetan babes-lerroaren ibilbidea zehazteko asmoz eta, horrela, esparrura sartzeko ustezko puntu bat baieztatu ahal izateko, 2020ko ekinaldian bi jarduera egin genituen: georradar bidezko azterketa bat, lurpean ezkutatu dagoen tokietan ibilbidea zehazteko, eta bestetik, kanpoko eta barruko horma eta betelana argi eta garbi zehaztuta dauden indusketaren amaieratik, harresiaren 13W/14W koadroetan, herrixkara ekialdetik sartzeko gaur egungo mendi-bideraino.

Berriki amaitutako ekinaldian esku-hartze horrekin jarraitu dugu: betelaneko lurra erauziz eta hainbat neurritako harri asko azaleratuz, ziur aski harresiaren beraren erorketari dagozkionak. 2022ko ekinaldian jarraituko dugu eremu horretan.




Lanen gaur egungo egoera, gaur egun herrixkara sartzeko erabiltzen den mendi-bidearekin muga egiten duen eremuan.

6. GEORRADAR AZTERKETA


Herrixkaren ekialdeko terrazan harresiak egiten duen ibilbidea hainbat fasetan induskatua dago ekialdetik aztarnategira igotzen den mendibidearen bi aldeetan (ipar eta hegoaldean). Hala ere, induskatutako bi ertzetako ibilbideak kota oso desberdinetan daude, eta egiturak alde horretan eten bat duela adieraz dezake, esparrurako ustezko sarrera batekin zerikusia izan dezakeena.

Horregatik, lursaila aztertzea erabaki zen, eremu horretan indusketa-lanak egin gabe babes-egituraren ibilbidea zehazteko.

Landa-lan hauek erakutsi digute norabide batean harri kontzentrazio bat egon daitekeela, eta babes nabarmen desbideratzearen ondorio izan daiteke; 2022ko ekinaldian baieztatuko dugu, zenbait puntutan lan arkeologikoa eginda.




Ustezko sarrerarekin erlazionatutako harresi-eremuaren irudia.



Aztertutako eremuaren kokapena.





Georradarraren emaitza.

MATERIALAK

Ekinaldi honetan hainbat motatako material arkeologikoak aurkitu genituen baina batez ere zeramikazkoak (eskuzkoak nahiz tornuzkoak), haietako batzuk tamaina politekoak. Harrizko materialen artean, batik bat leuntzaileak eta eraunskailuak dauzkagu, baina lerro zuzenak grabatuta dituen harlauzaren bat ere aurkitu genuen.

Zepa-hondakinak oso ohikoak izan ziren, batez ere S bandan. 16T koadroan aurkitutako bat, zenbait kilogramoko pisua zuena, nabarmendu behar da.

Burdinazko zenbait aztarna ere aurkitu genituen, horien artean aizto bat nabarmendu behar delarik. Burdin mea ere agertzen da.

Azkenik aipatu behar dugu, kolore urdineko beirazko beste lepoko ale bat, oso-oso txikia, aurkitu genuela 17T koadroan.

BESTE EKINTZA BATZUK ETA ONDAREAREN ZABALKUNDEA

Covid 19ak eragindako egoera berezia izanik ere, aztarnategira ikustaldiak normaltasunez egin dituzte inguruko hainbat ikastoletako hurrek; Anoetako udalak antolatuta, talde ugari izan dira eta babes-neurriak bete dituzte.

Aurreko ekinaldietan bezalaxe, indusketa-ekinaldian zehar aztarnategira etorritako eskualdeko eta herrialdeko zenbait komunikabideri kasu egin genien.



Ikastola bateko talde bat 2021eko arkeologia-lanak ikusten (musukoekin).